

PRENTSA OHARRA

Aguraingo kiroldegian obrak hasi dira

Lehenengo fasean, igerileku estalien leihateak itxiko dira, azpiegitura berriarekin muga egingez, eta horrek hiru astez ixtea eragingo du.

2024/09/09. Agurain. Gaur hasi dira Aguraingo kiroldegiko lanak. Urtebetez iraungo dute eta 6,5 milioi euroko inbertsioa izango dute. Eraberritzearen ondorioz Agurainek frontoia handituko du eta kantxa berri bat, kirol anitzeko pista bat, aldagelak, harmaila bat, rokodromo bat eta biltegiak hartuko ditu azpiegitura berriak. Horrez gain, igerileku estalien eraikinean geruza berri bat jarriko da eraginkortasun energetikoa hobetzeko.

Lanak hainbat fasetan egingo dira, eta lehen hiru aste hauetan azpiegitura berriekin muga egiten duten igerileku estalietako leihateak itxiko dira. Zeregin horiek direla-eta, igerilekuak itxi egin behar da hiru astez gutxi gora behera.

Bien bitartean, kirol-eremuaren barruko azpiegitura batzuk desmuntatzen hasi dira, aurten beste espazio batzuetan berrerabiliko direlako. Hala, eskola-kirola Aguraingo hainbat azpiegituratan egingo da, eta federatua Donemiliaga, Asparrenara eta Olaztira joango da.

Era berean, Aguraingo Udala Eusko Jaurlaritzaren txostenaren zain dago, egungo kiroldegiko instalazioetan amiantoa kentzeko lanak egin ahal izateko. Lan horiek egiten diren bitartean, itxi egingo da eskola-eremutik kirol-eremura doan oinezkoentzako pasabidea, herritarren segurtasuna bermatzeko.

Raul Lopez de Uralde Aguraingo alkatea gogorarazi duenez, obra handia da, kudeatzen zaila, eta eragozpenak sortuko dizkie erabiltzaileei. "Lanak bizkortzeko eta eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezen ahalegintzeko lan egiten dugu, baina kirol eremu berriak aurten izango ditugun eragozpenak konpentsatuko dituelakoan gaude", gaineratu du.

NOTA DE PRENSA

Arrancan las obras en el polideportivo de Agurain

Durante la primera fase se cerrarán los ventanales de las piscinas cubiertas que lindarán con la nueva infraestructura lo que provocará su cierre durante tres semanas.

2024/09/09 Agurain. Hoy han arrancado las obras del polideportivo de Agurain, unos trabajos que se prolongarán durante un año y que supondrán una inversión de 6,5 millones de euros. Esta ambiciosa reforma consiste en ampliar el frontón que acogerá una nueva cancha, una pista multideporte, así como vestuarios, un graderío, un rocódromo y almacenes. Además, se colocará una capa envolvente en el edificio de las piscinas cubiertas para mejorar su eficiencia energética.

Los trabajos se llevarán a cabo por fases y durante estas tres primeras semanas se procederá al cierre de los ventanales de las piscinas cubiertas que lindan con las nuevas infraestructuras. Estas tareas obligan a cerrar las piscinas durante un plazo de tres semanas aproximadamente.

Mientras tanto, ya se ha iniciado el desmontaje de algunas infraestructuras interiores de la zona deportiva que se reutilizarán en otros espacios durante este año. Así, el deporte escolar se desarrollará en diferentes infraestructuras de Agurain, mientras que el federado se desplazará a Donemiliaga, Asparrena y Olazti.

A su vez, el Ayuntamiento de Agurain está a la espera del informe del Gobierno vasco que permita llevar a cabo los trabajos de desamiantado de las instalaciones del actual polideportivo. Cuando arranquen esas tareas se cerrará la pasarela peatonal que va desde la zona escolar hasta la zona deportiva para garantizar la seguridad de la ciudadanía.

El alcalde de Agurain, Raúl López de Uralde, ha recordado que se trata de una obra de grandes dimensiones, difícil de gestionar y que generará molestias a las personas usuarias. “Trabajamos para acelerar los trabajos y procurar que las molestias sean las mínimas posibles y pero, confiamos en que la nueva zona deportiva compense las molestias que sufriremos durante este año” ha añadido.